






# IPAR ATLANTIKOKO MUGAPENAREN ITSAS ESTRATEGIA

2008/56/CE Arauaren bidez, itsas ingurune politikarako erkidego jardura esparrua ezarri da (Itsas strategiari buruzko esparru araua, DMEM). Bere azken helburua itsas ingurune Ingurune Egoera Egokia (IEE), gehienez, 2020. urtean lortzea edo mantentzea da. DMEM araua gure ordenamendu juridikoan sartu zen itsas ingurunearen babesari buruzko 41/2010 Legearen bidez.

Itsas estrategiak IEE lortzeko edo mantentzeko erreferentziatzko ingurumen planifikazioak dira. Honako faseak hartzen dituzte barne: uretako ingurumen egoeraren ebaluazioa, IEEa zehaztea, lortu beharreko ingurumen helburuak ezartzea, jarraipen programa bat eta aipatutako helburuak lortzeko neurrien programa bat, hori guztia 11 deskribatzaile kualitatiboak oinarri hartuta (DMEM arauaren I. Eranskina).

## PREBENTIBOAK ETA INPAKTUAK



LEGENDA: Lasta urak (1); Akuikultura (2); Portu dragatzeak (3); Hiriko hondakin urak (4); Ainguratzea (5); Kirol urpekaritza (6); Bainua (7); Arrantza profesionala (8); Itsaski-bilketa (9); Noizbehinkako harrapaketak (10); Arrezife artifizialak (11); Uholdeen aurkako babesak (12); Jalkitze atmosferikoa (13); Itsas zaborrak (14); Portu azpiegiturak (15); Kableak eta hodiak (16); Isurpen gatzunak (17); Ubidearen aldaketak (18); Petrolio eta gas eruzketa (19).

## INGURUMEN HELBURUAK

**A** Itsas ingurumena **BABESTEA ETA ZAINTEA**, bere biodibertsitatea barne, hura hondatzea saihestea eta itsas ekosistemak berreskuratzea eragin negatiboa jaso duten zonaldeetan.

**B** Itsas ingurunerako isurtzeak **PREBENITZEA ETA MURRIZTEA**, itsas ingurumenaren kutsadura pixkanaka desagerrarazteko eta itsas biodibertsitaterako eta ekosistemarako, giza osasunerako edo itsasoan baimendutako erabileretarako inpaktu edo arrisku larriak ez eragitearen alde egitea.

**C** **BERMATZEA** itsas ingurune jarduerak eta erabilerak bere biodibertsitatearen babesarekin bat etortzea.

17 Helburu partikularrak

19 Helburu partikularrak

21 Helburu partikularrak

## ANALISI EKONOMIKOA ETA SOZIALA

Hauek dira ipar atlantikoko mugapenaren itsas ingurumeneko jardura ekonomiko eta sektore garrantzitsuenak: **arrantza sektorea, portu azpiegiturak, itsas eta olgeta jardura, itsas garraioa eta turismoa.**

## INGURUMEN EGOERA EGOKIA


Irizpide zientifikoak hartuta eta itsas deskribatzaile bakoitzerako, lortu nahi den IEEa deskribatu da. Kasu gehienetan, deskripzioa jorratzeko irizpide kualitatiboak edo erdi kuantitatiboak hartu dira oinarri, eta gaur egungo helburua definizio kuantitatibo bat lortzea da IEE/ez IEE arteko atari balioen bidez.

### HASIERAKO EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

- Ebaluazio irizpideak dituzten arrantza stockek ez dute IEE lortzearen alde egiten.
- Eutrofizazioari dagokionez, IEE lortu egin da, nahiz eta zenbait zonaldeetan elikagaien kontzentrazio handiak atzeman.
- Berokuntza orokorreko efektuek ekosistemei presio handia eragiten diete.
- Azpiegitura zibilek eragindako inpaktuak kokapen zehatza dauka eta mugatua da.
- Kostaldeko aldaketak eta arno hidrografikoen erregulazioek eragindako inpaktua sakonago aztertu behar da.
- Adierazle gehienentzako ezezagunak dira IEE egituratzeko erreferentzia hartu beharreko balioak, horregatik, IEEren definizio askok izaera kualitatiboa daukate.

## NEURRIEN PROGRAMAK

Estrategien alderdi exekutiboena dira eta aurreko fasetan lortutako emaitzekin lotuta daude. Proposatutako neurri berriak diseinatu dira ikuspegi ekosistemiko batekin eta deskribatzaile bakoitzerako, itsas ingurumeneko egoeraren (hasierako ebaluazioa) eta lortu nahi den IEE artean, identifikatutako gabeziak betetzeko helburuarekin, beraz, denek itsas ingurumenaren babesari on egingo diote.



D1: Biodibertsitatea; D2: Espezie exotiko inbaditzaileak; D3: Merkataritzan ustiatutako espezieak; D4: Sare trofikoak; D5: Eutrofizazioa; D6: Itsas hondoen integrazioa; D7: Baldintza hidrografikoen aldaketa; D8: Kutsatzaileak eta bere efektuak; D9: Kutsatzaileak arrantza produktuetan; D10: Itsas zaborrak; D11: Urpeko zarata; EMP: Babestutako Itsas Gunak.

## D3 MERKATARITZAN USTIATUTAKO ESPEZIEAK

### Hasierako Ebaluazioa


Zonaldeko lehorreratze guztien %97 barne hartzen duten 16 arrantza stocken analisia oinarri hartuta (28 espezie), baieztatu daiteke ez dela IEE lortu.



ZOE/CENEAM-MMA

### Ingurumeneko Egoera Egokia

IEE lortu da gutxienez stocken %50 berdean agertzen direnean eta horietako bat ere gorrian, "arrantza jardueraren presio" mailari eta "populazioaren ugalketa ahalmenari" dagokionez Stock bakoitzak balio bat eta kolore bat dauka berekin, aipatutako irizpideei dagokionez aurkitzen den egoeraren arabera.



J.M. Castro Martin/CENEAM-MMA

### Ingurumen Helburuak

Arrantza stockak egoki kudeatuko direla bermatzea, hartara, muga biologiko seguruen barruan mantendu ahal izango dira.

Bazterkien politika bat ezartzea nahitaezkoa da Arrantza Politika Erkide berrirako (APE).



TRAGSATEC

### Jarraipen programak

**Merkataritza espezieak**  
APEn kudeatutako stockak Monitorizatzeko Programak.

**Osagarritzko datuak**  
APEn barne hartzen ez diren arrantzagien jarraipena lantzeko programa nazionalak eta autonomikoak.

**Giza jarduerak:** itsas arrantza Indize gisa arrantza esfortzuaren maila nazionalako espazio distribuzioa erabiltzen du.



J.M. Pérez de Ayala/CENEAM-MMA

### Neurrien Programak

Dagoen neurria: "Bazterkiak ezabatzeko estatuko mahaia", ildo honetan neurriak ezartzeko koordinazio foroa.

Neurri berria: EC4. Bazterkien politika betetzeko helburua duten jarduerak.



J. Maguregi Arenaza/CENEAM-MMA